



FIRMADO POR

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORNOZ
09/01/2025



BASABURUKO UDALA
31866-Jauntsarats
(Nafarroa)

Basaburuko udaleko alkateak jarraian zehazten den erabakia hartu zuen:

EBAZPENA

2022ko abenduaren 19ko 253. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko ezohiko prozesuari dagokion udaleko garbiketa lanpostua merezimendu bidez betetzeko deialdia, enplegu publikoan behin behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 legean xedatutakoaren arabera.

Aurkeztutakoen behin betiko zerrenda onartu eta argitaratu zen Basaburuko Udaleko web orrian eta merituen balorazioa, Basaburuko udaleko web orrietan argitaratu zen puntuazioarik handiena lortu zuten izengaien izendatzeko proposamena, deialdian eskatutako baldintzak betetzen zituztelako

Deialdian eskatutako agiriak aurkeztu ondoren eta bertan eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatuta, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ezarritako eskumenak erabiliz garbiketa lanpostuko 03 eta 04 plazak esleitu ziren.

2024ko abenduaren 19an garbiketako 4. lanposturako izendatutako Maite Barberia Azpirozek lanpostua hartu zuen egun berean eszedentzia eskatuz.

Udalak 149/2024 ebazpen bidez Maite Barberia Azpirozi eszedentzia onartu zion 1993/251 Foru Dekretu Legegilearen 26 b artikuluari jarraiki.

Ondoren web orrian lanposturako 2. deialdia argitaratu zen, M^a Paz Echarri Echeguiaren alde, honek abenduaren 19an lanpostuari uko egin ziolarik.

Ondorioz, 3. deialdi gehigarria argitaratu zen Aitor Arangoa Mariezkurrenaren alde. Honek abenduaren 26an 04 garbiketa lanposturako lan proposamena onartu zuelarik.

Horregatik,

EBAZTEN DUT

1.- Aitor Arangoa Mariezkurrena izendatzea modu gehigarrian, Basaburuko udaleko plantilla organikoko 04 Garbiketa lanpostua betetzeko, E mailan, araubide juridikoaren arabera lan-erregimenean kontratatuekin, lanaldia %60.50 izanik eta hizkuntza eskakizuna euskara B1 idatzia, B2 ahozkoa izanik.

Asunción kalea, 7 -Jauntsarats (Nafarroa) – C.P. 31866 – Tel. 948 50 30 35; udala@basaburua.eus



FIRMADO POR

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
09/01/2025



SELLO

BASABURUA
Registro de Salida n.º 11/2025
Copia escaneada
09/01/2025 12:52



BASABURUA

Código Seguro de Verificación: MDCA AAJW YKH9 TZXJ VVWW

Resolucion_N_3_de_09012025_Ebazpena_izendapena_-_SEGRA_57855

La comprobación de la autenticidad de este documento y otra información está disponible en <https://basaburua.sedipualba.es/>

Pág. 1 de 2



FIRMADO POR

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONOZ
09/01/2025

2.- Izendatutako izangaia urtarrilaren 2an hartuko du lanpostua, Nafarroako Administrazio Publikoetan enplegu publikoan behin behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondoriozko egonkortze-prozesuak egiteko neurriei buruzko uztailaren 1eko 19/2022 foru legearen 6.4 artikulua araberaz.

Egun horretan, eta behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik, lanpostua hartzen ez badu toki-erakunde deitzaileko lan-kontratuko langile finko izateko eskubide guztiak galduko ditu.

3.- Izendatuari eskatzea egonkortze prozesua arautu dituen oinarrien 10.2 puntuan agertzen diren dokumentuak 10 eguneko epean aurkeztea.

4.-Ebazpen hau, dagozkion ondorioak izan ditzan, Nafarroako Aldizkari Ofizialen argitaratzea baita Basaburuko udaleko web orrian. Ebazpen honen aurka nahi izanez gero, honako errekurtso hauetako bat aurkez daiteke:

Denen ezagutzarako jakinarazten dut eta ohartarazten dut akordio honen aurka ondorengo helegiteak aurkeztu daitezkeela:

- a) *Berraztertze helegitea erabakia hartu duen organoaren aurrean, erabakia hartu eta hurrengo egunetik hilabete bateko epean*
- b) *Administrazioarekiko auzi helegitea Nafarroako Administrazio auzi epaitegian bi hilabeteren buruan akordioa jaso eta gero.*
- c) *Jasotzeko helegitea Nafarroako Auzitegi Administrazioan hilabete baten buruan erabakia jaso eta gero.*

Jauntsaratsen, 2025eko urtarrilaren 8an.

ALKATEA

IDAZKARIA

Izp: Santos Etxegia Oronoz

Izp: Lucia Beloqui Iriarte



SELLO

BASABURUA
Registro de Salida n.º 11/2025
Copia escaneada
09/01/2025 12:52

Asunción kalea, 7 -Jauntsarats (Nafarroa) – C.P. 31866 – Tel. 948 50 30 35; udala@basaburua.eus



BASABURUA

Código Seguro de Verificación: MDCA AAJW YKH9 TZXJ VVWW

Resolucion_N_3_de_09012025_Ebazpena_izendapena_-_SEGRA_57855

La comprobación de la autenticidad de este documento y otra información está disponible en <https://basaburua.sedipualba.es/>

Pág. 2 de 2